Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3377

141/2011 DEKRETUA, ekainaren 28koa, Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an hartutako akordioa onartzen duena. Akordio hori Euskal Autonomia Erkidegoari jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak gehitzeari buruzkoa da.

Dekretu honen xedea bikoitza da: alde batetik, ekainaren 24ko 896/2011 Errege Dekretuaren bidez Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an hartu zuen akordioa onartzea eta argitaratzeko agintzea; beste aldetik, dekretuaren beste xedea eskualdatutako zerbitzuak atxikitzea da. Akordio horren bidez gehitu egiten dira jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan Euskal Autonomia Erkidegoari irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak. Hori guztia, gainera, irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuaren bidez Transferentzien Bitariko Batzordeak onartutako Akordioaren 2. artikuluaren arabera eta errege-dekretu horretan agintzen diren formalizazio-izapideak betetze aldera.

Horregatik guztiagatik, Transferentzien Bitariko Batzordeko presidenteordea den Herrizaingoko sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartu ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko ekainaren 28an egindako bileran kontu hori aztertu eta onartu zuela ikusita, honakoa

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Transferentzien Bitariko Batzordearen 2011ko ekainaren 22ko Akordioa onartzea, ekainaren 24ko 896/2011 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Akordio horren bidez gehitu egiten dira Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoari jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen gaineko irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkionak. Akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzea agintzen da, dekretu honen eranskin gisa.

2. artikulua.– Eskualdatutako zerbitzuak gai horretan eskumena duten sailei atxikita gelditu dira.

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

3377

DECRETO 141/2011, de 28 de junio, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 22 de junio de 2011, sobre ampliación de servicios de la Administración General del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 3069/1980, de 28 de septiembre, en materia de ejecución de la legislación sobre propiedad intelectual.

El presente Decreto tiene un doble objeto: de una parte, aprobar el Acuerdo de la sesión de 22 de junio de 2011 del Pleno de la Comisión Mixta de Transferencias, aprobado por el Real Decreto 896/2011 de 24 de junio, así como disponer su publicación; por otro lado, este Decreto procede a adscribir los servicios transferidos en el citado Acuerdo. En virtud de dicho Acuerdo se procede a la ampliación de servicios de la Administración General del Estado traspasados por el Real Decreto 3069/1980, de 28 de septiembre, a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de ejecución de la legislación sobre propiedad intelectual. Todo ello de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 2 del Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias, aprobado por Real Decreto 2339/1980, de 26 de septiembre, y a los efectos del cumplimiento de los trámites de formalización requeridos en el mismo.

Por todo lo cual, a propuesta del Consejero de Interior en su calidad de Vicepresidente de la Comisión Mixta de Transferencias, previa aprobación de la Presidencia, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 28 de junio de 2011,

DISPONGO:

Artículo 1.– Aprobar el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 22 de junio de 2011 en los términos establecidos por el Real Decreto 896/2011, de 24 de junio. A través de dicho Acuerdo se procede a la ampliación de servicios de la Administración General del Estado traspasados por el 3069/1980, de 28 de septiembre a la Comunidad Autónoma del País Vasco, en materia de ejecución de la legislación sobre propiedad intelectual. Así mismo, se ordena su publicación íntegra en el Boletín Oficial del País Vasco como anexo al presente Decreto.

Artículo 2.– Los servicios transferidos quedarán adscritos a los departamentos competentes en la materia.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 28an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Herrizaingoko sailburua eta Transferentzien Bitariko Batzordeko presidenteordea,
RODOLFO ARES TABOADA.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de junio de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Interior y Vicepresidente de la Comisión Mixta de Transferencias,
RODOLFO ARES TABOADA.

EKAINAREN 28KO 141/2011 DEKRETUAREN ERANSKINA
EKAINAREN 24KO 896/2011 ERREGE-DEKRETUA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI JABETZA INTELEKTUALARI BURUZKO LEGERIA BETEARAZTEAREN GAINEKO IRAILAREN 28KO 3069/1980 ERREGE DEKRETUAREN BIDEZ ESKUALDATU ZITZAIZKION ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ZERBITZUAK GEHITZEARI BURUZKOA.

Konstituzioaren 149.1.9 artikuluak dioenez, Estatuak du jabetza intelektualaren gaineko legeriaren eskumen esklusiboa.

Era berean, Konstituzioaren 149.2 artikuluaren arabera, autonomia-erkidegoek bereganatu ahal dituzten eskumenei kalterik egin gabe, estatuarentzat eginbeharra eta oinarrizko aginpidea izango da kultur zerbitzua, eta autonomia-erkidegoen artean kultur harremanak erraztuko ditu, horiekin ados jarrita.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutua abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartu zuen. Autonomia-estatutuaren 12.4 artikuluak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuak jabetza intelektualaren gainean duen legeria betearaztea.

Arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenak erregularizatu, argitu eta harmonizatu nahirik, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginaren 144. artikuluak dio Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorra bakarra izango dela estatu osoan. Apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu bategin hori. Lurralde-erregistroek eta Erregistro Nagusiak osatuko dute Erregistro Orokorra. Autonomia-erkidegoek sortu eta kudeatuko dituzte lurralde-erregistro horiek, hala baitago xedatuta Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorraren Erregelamenduaren 2. artikuluan (martxoaren 7ko 281/2003 Errege Dekretuaren bidez onartu zena). Martxoaren 7ko 281/2003 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorraren arabera, autonomia-erkidegoetara eta

ANEXO AL DECRETO 141/2011, DE 28 DE JUNIO
REAL DECRETO 896/2011, DE 24 DE JUNIO, SOBRE AMPLIACIÓN DE SERVICIOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL ESTADO TRASPASADOS A LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO POR EL REAL DECRETO 3069/1980, DE 28 DE SEPTIEMBRE, EN MATERIA DE EJECUCIÓN DE LA LEGISLACIÓN SOBRE PROPIEDAD INTELECTUAL

El artículo 149.1.9.ª de la Constitución determina que el Estado tiene competencia exclusiva en materia de legislación sobre propiedad intelectual.

A su vez, el artículo 149.2 de la Constitución señala que, sin perjuicio de las competencias que podrán asumir las Comunidades Autónomas, el Estado considerará el servicio de la cultura como deber y atribución esencial y facilitará la comunicación cultural entre las Comunidades Autónomas, de acuerdo con ellas.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, dispone en su artículo 12.4.ª que corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco la ejecución de la legislación del Estado en materia de propiedad intelectual.

El artículo 144 del texto refundido de la Ley de Propiedad Intelectual, regularizando, aclarando y armonizando las disposiciones legales vigentes sobre la materia, aprobado por Real Decreto legislativo 1/1996, de 12 de abril, establece que el Registro General de la Propiedad Intelectual tendrá carácter único en todo el territorio nacional. Asimismo estará integrado por los registros territoriales y el registro central, siendo aquéllos creados y gestionados por las comunidades autónomas de acuerdo con el artículo 2 del Reglamento del Registro General de la Propiedad Intelectual, aprobado por Real Decreto 281/2003, de 7 de marzo. La disposición transitoria primera del Real Decreto 281/2003, de 7 de marzo, dispone que la puesta en marcha de los registros territoriales

Ceuta eta Melillara zerbitzuak eskualdatzeari buruzko errege-dekretuetan ezartzen den egunean jarriko dira abian lurralde-erregistroak, eta eskumena izango dute ordutik aurrera aurkezten diren eskabideak jasotzeko.

Irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion kultura arloko fundazioak eta elkarteak, liburuak eta liburutegiak, zinematografia, musika eta antzerkia, gazteria, sustapen soziokulturala, ondare historiko-artistikoaren sustapena eta kirolaren arloko Estatuaren zerbitzuak.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak zehatz ezartzen dute zein eratan eta zer prozeduraren bidez gauzatu behar den Estatuko Administrazioaren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aipatzen den Transferentzien Bitariko Batzordeak, 2011ko ekainaren 22ko bileran lortutako akordio baten bidez, jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak gehitzea erabaki zuen. Akordio hori gauzatzeko Gobernuak errege-dekretu bidezko onarpena eman behar du.

Hori dela-eta, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa betetzeko, Lurralde Politika eta Administrazio Publikoko ministroaren proposamenez eta Ministroen Kontseiluak 2011ko ekainaren 24ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean adierazten den Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22ko osoko bilkuran hartutako akordioa onartzen da. Akordio horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak gehitzen dira. Errege-dekretu honen eranskin gisa dator akordioaren testua.

2. artikulua.– Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio Transferentzien Bitariko Batzordearen akordioan aditzera ematen diren zerbitzuak, bertan zehazten diren moduan eta baldintzetan.

3. artikulua.– Transferentzien Bitariko Batzordearen akordioan adierazitako egunetik aurrera izango du eragina zerbitzuen gehitzeak.

tendrá lugar en la fecha establecida en los correspondientes reales decretos de traspaso de servicios a las comunidades autónomas o Ciudades de Ceuta y Melilla, siendo competentes para conocer de las solicitudes que se presenten a partir de tal fecha.

Por el Real Decreto 3069/1980, de 28 de septiembre, se efectuó el traspaso de servicios del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de fundaciones y asociaciones culturales, libro y bibliotecas, cinematografía, música y teatro, juventud y promoción sociocultural, patrimonio histórico-artístico y deportes.

Finalmente, la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y el Real Decreto 2339/1980, de 26 de septiembre, establecen la forma y el procedimiento a que han de ajustarse los traspasos de servicios de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco adoptó, en su reunión del día 22 de junio de 2011, el acuerdo sobre ampliación de servicios de la Administración General del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 3069/1980, de 28 de septiembre, en materia de ejecución de la legislación sobre propiedad intelectual, cuya virtualidad práctica exige su aprobación por el Gobierno mediante real decreto.

En su virtud, en cumplimiento de lo dispuesto en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, a propuesta del Ministro de Política Territorial y Administración Pública y previa deliberación del Consejo de Ministros en su reunión del día 24 de junio de 2011,

DISPONGO:

Artículo 1.– Se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, sobre ampliación de servicios de la Administración General del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 3069/1980, de 28 de septiembre, en materia de ejecución de la legislación sobre propiedad intelectual, adoptado por el Pleno de dicha Comisión en su sesión del 22 de junio de 2011, y que se transcribe como anexo de este Real Decreto.

Artículo 2.– En consecuencia, quedan ampliados a la Comunidad Autónoma del País Vasco los servicios que figuran en el acuerdo de la Comisión Mixta, en los términos y condiciones que allí se especifican.

Artículo 3.– La ampliación de servicios será efectiva a partir de la fecha señalada en el acuerdo de la Comisión Mixta.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean sartzea.

Errege-dekretu hau aldi berean argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

ERANSKINA, EKAINAREN 24KO 896/2011 DEKRETUARENA TRANSFERENTZIEN BITARIKO BATZORDEAREN 2011KO EKAINAREN 22KO AKORDIOA

Antonio Lopez Soto eta Juan Ignacio Urresola Arechabala jaunek, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Transferentzien Bitariko Batzordeko idazkariek, honako hau

ZIURTATZEN DUTE

Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22ko bilkuran akordioa lortu zuela Euskal Autonomia Erkidegoari jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak gehitzeari buruz. Gehitze hori honela egin beharko da:

A) Zerbitzuak gehitzeko zein konstituzio-arau, Autonomia-Estatutuko arau eta legezko arau hartu den oinarri.

Konstituzioaren 149.1.9 artikuluak dioenez, Estatuak du jabetza intelektualaren gaineko legeriaren eskumen esklusiboa.

Era berean, Konstituzioaren 149.2 artikuluaren arabera, autonomia-erkidegoek bereganatu ahal dituzten eskumenei kalterik egin gabe, estatuarentzat eginbeharra eta oinarrizko aginpidea izango da kultur zerbitzua, eta autonomia-erkidegoen artean kultur harremanak erraztuko ditu, horiekin ados jarrita.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutua abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartu zuen. Autonomia-estatutuaren 12.4 artikuluak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuak jabetza intelektualaren gainean duen legeria betearaztea.

Arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenak erregularizatu, argitu eta harmonizatu nahirik, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginaren 144. artikuluak dio Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorra bakarra izango dela estatu osoan. Apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu bategin hori. Lurralde-erregistroek eta Erregistro Nagusiak osatuko dute Erregistro Orokorra.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

Este Real Decreto será publicado simultáneamente en el «Boletín Oficial del Estado» y en el «Boletín Oficial del País Vasco», adquiriendo vigencia el día siguiente al de su publicación.

ANEXO AL REAL DECRETO 896/2011, DE 24 DE JUNIO ACUERDO DE LA COMISIÓN MIXTA DE TRANSFERENCIAS DE 22 DE JUNIO DE 2011

D. Antonio López Soto y D. Juan Ignacio Urresola Arechabala, Secretarios de la Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía del País Vasco,

CERTIFICAN:

Que en el Pleno de la Comisión Mixta celebrado el día 22 de junio de 2011, se adoptó un acuerdo sobre ampliación de servicios de la Administración General del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 3069/1980, de 28 de septiembre, en materia de ejecución de la legislación sobre propiedad intelectual, en los términos que a continuación se indican:

A) Normas constitucionales, estatutarias y legales en las que se ampara la ampliación de servicios.

El artículo 149.1.9.ª de la Constitución determina que el Estado tiene competencia exclusiva en materia de legislación sobre propiedad intelectual.

A su vez, el artículo 149.2 de la Constitución señala que, sin perjuicio de las competencias que podrán asumir las Comunidades Autónomas, el Estado considerará el servicio de la cultura como deber y atribución esencial y facilitará la comunicación cultural entre las Comunidades Autónomas, de acuerdo con ellas.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, dispone en su artículo 12.4.ª que corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco la ejecución de la legislación del Estado en materia de propiedad intelectual.

El artículo 144 del texto refundido de la Ley de Propiedad Intelectual, regularizando, aclarando y armonizando las disposiciones legales vigentes sobre la materia, aprobado por Real Decreto legislativo 1/1996, de 12 de abril, establece que el Registro General de la Propiedad Intelectual tendrá carácter único en todo el territorio nacional. Asimismo estará integrado por los registros territoriales y el registro

Autonomia-erkidegoek sortu eta kudeatuko dituzte lurralde-erregistro horiek, hala baitago xedatuta Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorraren Erregelamenduaren 2. artikuluan (martxoaren 7ko 281/2003 Errege Dekretuaren bidez onartu zena). Martxoaren 7ko 281/2003 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorraren arabera, autonomia-erkidegoetara eta Ceuta eta Melillara zerbitzuak eskualdatzeari buruzko errege-dekretuetan ezartzen den egunean jarriko dira abian lurralde-erregistroak, eta eskumena izango dute ordutik aurrera aurkezten diren eskabideak jasotzeko.

Irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion fundazio eta elkarte kulturalen, liburu eta biblioteken, zinematografia, musika eta antzerkiaren, gazteria eta sustapen soziokulturalaren, ondare historiko-artistiko eta kirolen arloko Estatuaren zerbitzuak.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak zehatz ezartzen dute zein eratan eta zer prozeduraren bidez gauzatu behar den Estatuko Administrazioaren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea.

Konstituzioan eta Estatutuan ezarritakoak oinarri hartuta, formalizatu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoari jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzuak gehitzeari buruzko akordioa.

B) Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen dituen estatuko administrazioaren zerbitzuak.

1.– Gehitu egiten dira jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arloan dituen eginkizunak bete ditzan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako bitartekoak.

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Jabetza Intelektualaren Lurralde Erregistroa ezarri eta kudeatzea.

b) Lurralde-erregistroaren egitura eta funtzionamendua zehaztea.

c) Lurralde-erregistroaren jardunbidea zehaztea eta inskribatze-prozedurari eta erregistroen arteko koordinazio- eta informazio-neurriei buruzko arau komunen arloan Jabetza Intelektualaren Erregistroari buruzko Erregelamendu Orokorrarekin bat etorriz.

2.– Jabetza intelektualaren eskubideak kudeatzen dituzten erakundeez bezainbatean, Euskal Autonomia Erkidegoak honako eginkizun hauek hartzen ditu bere gain, Estatuaren legeriak zehaztutakoaren arabera:

central, siendo aquéllos creados y gestionados por las comunidades autónomas de acuerdo con el artículo 2 del Reglamento del Registro General de la Propiedad Intelectual, aprobado por Real Decreto 281/2003, de 7 de marzo. La disposición transitoria primera del Real Decreto 281/2003, de 7 de marzo, dispone que la puesta en marcha de los registros territoriales tendrá lugar en la fecha establecida en los correspondientes reales decretos de traspaso de servicios a las comunidades autónomas o Ciudades de Ceuta y Melilla, siendo competentes para conocer de las solicitudes que se presenten a partir de tal fecha.

Por el Real Decreto 3069/1980, de 28 de septiembre, se efectuó el traspaso de servicios del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de fundaciones y asociaciones culturales, libro y bibliotecas, cinematografía, música y teatro, juventud y promoción sociocultural, patrimonio histórico-artístico y deportes.

La disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y el Real Decreto 2339/1980, de 26 de septiembre, establecen la forma y el procedimiento a que han de ajustarse los traspasos de servicios de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Sobre las bases de estas previsiones constitucionales y estatutarias procede formalizar el acuerdo sobre ampliación de servicios de la Administración General del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 3069/1980, de 28 de septiembre, en materia de ejecución de la legislación sobre propiedad intelectual.

B) Funciones y servicios de la Administración General del Estado que asume la Comunidad Autónoma del País Vasco.

1.– Se amplían los medios traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio de las funciones en materia de ejecución de la legislación sobre propiedad intelectual:

a) establecimiento y gestión por la Comunidad Autónoma del País Vasco del Registro Territorial de la Propiedad Intelectual de dicha Comunidad Autónoma.

b) determinación de su estructura y funcionamiento.

c) procedimiento de actuación del mismo, de acuerdo con lo establecido en el Reglamento General del Registro de la Propiedad Intelectual, en lo que se refiere a las normas comunes sobre procedimiento de inscripción y medidas de coordinación e información entre los diferentes registros.

2.– En cuanto a las entidades de gestión de derechos de propiedad intelectual, la Comunidad Autónoma del País Vasco asume las siguientes funciones en los términos que establezca la legislación del Estado:

a) Baimena ematea edo kentzea bakarrik edo nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan jardun nahi duten honako erakundeei edo erakunde-elkarteei, zeinak beren edo besteren izenean, zenbait egileren edo jabetza intelektualaren eskubideen beste titular batzuen kontura eta intereseko ustiapen-eskubideen edo ondare izaerako beste eskubide batzuen kudeaketan jarduten baitute. Baimena emateko aintzat hartuko dira Estatuko arauek ezarritako baldintzak betetzea, eskubideak modu eraginkorrean Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatzeko direla ziurtatzeko baldintzak eta interes orokorrekoa den jabetza intelektualaren babesa.

b) Kudeaketa-erakunde horien estatutuak eta horien aldaketak onartzea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten duten kudeaketa-erakunde guztiek estatu-arauetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztela zaintzea, bertako jarduerei dagokienez, eta bereziki: bere gain hartutako jabetza intelektualaren eskubideak kudeatzeko betebeharra, kudeaketa-kontratuen ezaugarriak, eskubideen banaketa eta kudeaketa-erakundeen funtzioa soziala.

d) Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten kudeaketa-erakunde guztien kontrola eta, hala badagokio, jabetza intelektualaren eskubideen ordezkaritza edo kudeaketa egiten duten erakundeena, bertako jarduerei dagokienez. Horren barruan daude kontularitzako dokumentazioa, urteko aitorpen-likidazioak eta egindako ordainketak fiskalizatzea.

e) Bitartekaritza eta arbitrajea, Estatuko Administrazio Orokorren ahalmenei kalterik egin gabe.

C) Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia-Erkidegoak batera eta era partekatuan beteko dituzten eginkizunak, eta lankidetzarako formula instituzionalak.

Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoak elkarren artean koordinatuta beteko dituzte honako eginkizun hauek:

a) Erregistro nagusiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-erregistroaren arteko lankidetza, Jabetza Intelektualaren Erregistro Orokorrari buruzko araudi espezifikoarekin bat etorriz.

b) Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoak akordio honetan aipatzen diren arloetan egoki iritzitako lankidetza-hitzarmenak burutu ahal izango dituzte.

c) Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Kultura Ministerioak informazioa etengabe trukatuko dute eta euren jardunetan lagunduko dute, komunikazio kultural estua izan dezaten, Konstituzioaren 149.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

a) La autorización y revocación de autorización de las entidades o asociaciones de entidades que pretendan dedicarse, de manera exclusiva o mayoritariamente en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en nombre propio o ajeno, a la gestión de derechos de explotación u otros de carácter patrimonial por cuenta y en interés de varios autores u otros titulares de derechos de propiedad intelectual. Para la autorización, se estará a la observancia de que cumplan los requisitos establecidos en la normativa estatal, las condiciones necesarias para asegurar la eficaz administración de los derechos en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el servicio a los intereses generales de la protección de la propiedad intelectual.

b) La aprobación de Estatutos de dichas entidades de gestión y sus modificaciones.

c) La vigilancia sobre el cumplimiento de las obligaciones y requisitos establecidos en la normativa estatal de todas las entidades de gestión que operen en la Comunidad Autónoma del País Vasco en lo relativo a su actividad en la misma, y en particular: la obligación de administrar los derechos de propiedad intelectual conferidos, las características de los contratos de gestión, el reparto de derechos y la función social de las entidades de gestión.

d) El control de todas las entidades de gestión o, en su caso, la representación o asociación gestora, que operen en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en lo relativo a su actividad en la misma. Ello incluye la fiscalización de documentación contable, de declaraciones-liquidaciones anuales y de la relación de pagos efectuados.

e) La mediación y el arbitraje, sin perjuicio de las facultades de la Administración General del Estado.

C) Funciones concurrentes y compartidas entre la Administración General del Estado y la Comunidad Autónoma del País Vasco y fórmulas institucionales de cooperación.

Se desarrollarán coordinadamente entre la Administración General del Estado y la Comunidad Autónoma del País Vasco las siguientes funciones:

a) La colaboración entre el registro central y el registro territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco con arreglo a la normativa específica sobre el Registro General de la Propiedad Intelectual.

b) La Administración General del Estado y la Comunidad Autónoma del País Vasco podrán establecer los convenios de colaboración que estimen convenientes en las materias a que se refiere este acuerdo.

c) Además, la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Ministerio de Cultura mantendrán constantes intercambios de información y colaborarán en sus respectivas acciones a fin de mantener una estrecha comunicación cultural, según lo previsto en el artículo 149.2 de la Constitución.

D) Eskualdaketaren eragina izango duten aurrekontu-kredituak.

Zerbitzuek estatu mailan guztira duten kostua, 2011ko ekitaldian, 1. zerrendan agertzen da.

E) Dokumentazioa eta espedienteak aurkeztea.

Eskualdatu diren zerbitzuen agiriak eta espedienteak hilabeteko epean aurkeztu behar dira, akordio hau onartzen duen errege-dekretua argitaratzen den egunetik hasita, irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuaren 4. artikuluak ezarritakoaren arabera.

F) Eskualdaketak indarra hartzeko eguna.

Akordio honen bidez onartu den zereginen eta zerbitzuen eskualdaketa 2011ko uztailaren 1ean sartuko da indarrean.

Eta jasota gera dadin, ziurtapen hau ematen da.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 22an.

Transferentzien Bitariko Batzordeko idazkariak,
ANTONIO LÓPEZ SOTO.
JUAN IGNACIO URRESOLA ARECHABALA.

D) Créditos presupuestarios afectados por el traspaso.

El coste total anual a nivel estatal asociado a la presente ampliación de servicios de la Administración General del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ejercicio de 2011, se recoge en la relación número 1.

E) Entrega de documentación y expedientes.

La entrega de la documentación y expedientes de los servicios que se amplían se realizará en el plazo de un mes desde la publicación del real decreto por el que se aprueba este acuerdo, de conformidad con el artículo cuarto del Real Decreto 2339/1980, de 26 de septiembre.

F) Fecha de efectividad de la ampliación.

La ampliación de servicios objeto de este acuerdo tendrá efectividad a partir del 1 de julio de 2011.

Y para que conste se expide la presente certificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de junio de 2011.

Los Secretarios de la Comisión Mixta,
ANTONIO LÓPEZ SOTO.
JUAN IGNACIO URRESOLA ARECHABALA.

1. ZERRENDA

Zerbitzuek estatu mailan guztira duten kostua (2011ko ekitaldiko aurrekontu-zuzkidurak))

	Kapitulua	eurotan
24.01.331M	1	1.155.504,22
24.02.331M	1	44.928,60
24.01.331M	2	133.882,98
24.02.331M	2	28,21
24.01.331M	6	76.258,71
24.02.331M	6	28,21
Guztira		1.410.630,93

RELACIÓN NÚMERO 1

Coste total anual a nivel estatal (dotaciones ejercicio 2011)

	Capítulo	*Euros*
24.01.331M	*1*	*1.155.504,22*
24.02.331M	*1*	*44.928,60*
24.01.331M	*2*	*133.882,98*
24.02.331M	*2*	*28,21*
24.01.331M	*6*	*76.258,71*
24.02.331M	*6*	*28,21*
Total		*1.410.630,93*